



2025UDOS0005

**Andoingo Udala****Akta: Osoko Udalbatza**

OHIKO BILKURA: 2025/05/29

**Acta: Pleno Municipal**

SESIÓN ORDINARIA: 29/05/2025

**Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos****Bildutakoak: / Asistentes:****Alkatea / La Alcaldesa** Andoni Alvarez Lete**Zinegotziak: / Concejales:****EH-Bildu**Marta Lasa Goñi  
Garazi Usandizaga Zubiria  
Iosu Mateo Torrillos  
Haizea Barandiaran Zubillaga  
Diego Barrasa Ruiz  
Larraitz Arriola Larrarte**PSE-EE**Maidier Lainez Lazcoz  
José Luis Verdasco Gutierrez  
Ascensión Parrón Peguero  
Aritz Alkain López  
María Belén Moreno Méndez**EAJ-PNV**Imanol Goenaga Egibar  
Idoia Mikelez Alonso  
M<sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández**Elkarrekin Podemos**

Jose Mari Iparragirre Balda

Akta Zenbakia	<b>00000005</b>
Eguna	<b>2025/05/29</b>
Hasiera	<b>19.00</b>
Amaiera	<b>20.42</b>

**Idazkaria:**

Unai Rekondo Pérez

**Kontuhartzailea**Myriam Lizaso  
Arruabarrena**Interpretaria**

Jon Unanue Lopez

**Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:**Xabier Fondón Pajares - **EH Bildu****Gai Zerrenda:****Orden del Día:****Xedapenak**

- 2025.03.31 datako Kontuhartzailearen txostenaren berri ematea.
- 03/2025 zk.ko Kreditu aldaketa espedientea onartzea.
2025. urterako taxien hiri tarifak onartzea.
- Andoingo Axeri Dantzari babesa emateko adierazpen instituzionala.
- PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeek urkeztutako mozioa, Palestinako egoerari buruzkoa.

**Parte Dispositiva**

- Dar cuenta del informe de la Interventora a fecha 31.03.2025.
- Aprobación del expediente modificativo de crédito nº 03/2025.
- Aprobación de las tarifas urbanas de taxi para el año 2025.
- Declaración institucional en apoyo a la Axeri Dantza de Andoain.
- Moción presentada por los grupos municipales PSE-EE y EAJ/PNV sobre la situación de Palestina.

**Kontrola**

- Ebazpenen berri ematea, zehazki, 950/2025 zenbakidunetik 1296/2025 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 10/2025.

**Parte de Control**

- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 950/2025 y la nº 1296/2025 y de los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local, en concreto los comprendidos entre el



aktatik 12/2025 aktara.

7. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

acta nº 10/2025 al acta nº 12/2025.

7.- Ruegos, preguntas y propuestas.

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzten da.**

---

“Arratsalde on, ongi etorriak ohiko udalbatza honetara. Hasi baino lehen, aipatu nahiko nuke Xabier Fondón zinegotzi jauna, aitatasun baja egoeran dagoela eta bere bozka eskuordetu duela. Besterik gabe hasiera emango diogu udalbatzari.”

**1. 2025.03.31 datako Kontuhartzailearen txostenaren berri ematea.**

Ikusirik, Kontuhartzailearen 2025.03.31 datako txostena, 2025eko lehen hiruhilekoari dagokiona.

Alkate jaunak hartu du hitza eta gaiari buruzko honako azalpena eman du:

“Dakizuen bezala, kontuhartzaitzatik hiru hilez behin txosten bat egiten da eta hau, 2025eko urtarrilaren 1tik martxoaren 31 bitarteko txostena da. Txostenak hiru zati ditu. Lehenengo zatian, ordainketaren epearen informazioa ematen da, lehenengo hiru hilabetearen laburpena da, 39,54 egunera egiten ari gara ordainketak, hau da dagokiona baino 39,54 egun beranduago. Bueno, kontuan izanda, lehenengo hiru hilabetearen aurreko urteko fakturak ere ordaintzen direla, ohikoa izaten da atzerapen hau.

“Bigarren zatian, aurrekontuaren exekuzioari buruzkoa da, bertan aipatzen dira gerakinaren erabilgarria den diru kopurua, maileguren egoera eta aurrekontuaren egonkortasunaren egoera.

“Hirugarren zatian, gastuen fiskalizazioaren informazioa. Bertan, faktura ezberdinak agertzen dira.”

Jarraian, gaia eztabaidara jarri du eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kaixo, arratsalde on. Bueno, volvemos a repetir lo mismo que repetimos una y otra vez, cada vez que se nos presenta el informe de intervención. Y es la preocupante situación que vemos con las licitaciones y con los contratos que llevan caducados desde agosto de 2023. Octubre de 2023. Temas tan importantes como son los de servicios sociales, del centro de día y el servicio de ayuda domiciliaria, que está caducado desde abril de 2024.

“Y, bueno, es un suma y sigue que se va repitiendo, y al final nos da la sensación que, por mucho que lo repetimos, entra por un oído, sale por otro, que aquí no pasa nada, que firmamos las facturas, incluso se pagan las facturas, incluso con el informe en negativo de la interventora. Y, oye, pues seguimos tirando para adelante. Hemos pedido más de una vez una planificación que no se ha cumplido, por supuesto y, nos encontramos en esta situación que consideramos que es ya alarmante. O sea, necesitamos seriedad y que el equipo de gobierno, área por área, se ponga de una vez por todas a sacar estos contratos. Porque no es, ni medio normal, que tengamos que estar cada tres meses recordando al equipo de gobierno cuál es su obligación con respecto a los contratos y a los servicios que se están efectuando sin el contrato.

“Así que, bueno, lo volvemos a decir, a ver si esta vez, ustedes nos hacen caso, se ponen a trabajar con ello. Y efectivamente, como ya dijo el señor Alcalde, que veríamos los resultados, no los vemos, no hay ni una sola variación, y esperemos que que así sea.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, guk ildo beretsutik. Bueno, politikan inportantea da zer egiten den eta zer ez. eta nola egiten dan, ez?”

“Eta nik uste dut EH Bildu zetorrela ba politika iraultzera eta ejenplaridadezko mezu asko jaso genituen azkeneko lau urteetan, eta errealitatea da eta bat egiten dugu jada, batzordez batzorde, plenez, pleno, errepikatzen ari gara zenbait gauza eta kontuhartzailearen txostena bastante larria da, ez? Literalmente irakurriko ditut estrakto batzuk.



“Se registran facturas sin contraído previo, incluso hay algunos servicios que han finalizado el contrato, se prestan servicios que están sin contrato, por ejemplo, el de publicidad, propaganda, suministros. Jo, hau jada hilabetez hilabete errepikatzen da eta ez hori bakarrik, jada daude konkurtso asko, 2023ko abuztutik, udaratik kadukatuta daudenak. Dagoeneko pasatu dira 21 hilabete, hori dira 630 egun baino gehiago.

“Hasieran esaten zen arazo bat zegoela, gero beste bat zegoela. Luzatzen ari ginela eta, azkenean aitzakiak, aitzakiak, aitzakiak, aitzakiak eta jada 21 hilabete, non, besteak beste, Basteroko zerbitzuak kadukatuta dagoen, zinema zerbitzua kadukatuta dagoen, etxez etxeko laguntza, alegia, zerrenda bat egin dugu, interbentoreak non, errealitate bat itxuratzen due.

“Bueno, preokupatzen hasten gera, gainera, ze gauza bat da, hasieran \_voto de confianza \_hori ematea, eta gogoratu behar dugu aurrekoan Ambrosia Olabide izan zen eta begira egon nintzen eta orain zuengandik zuen atean jarrita dago, eh. Garai hartan egin zenuten folleto bat, \_aterrizo como puedas\_, ez? Lehenbiziko 100 egunen balorazioaren ingurukoa. Eta, jo, ba eztaikit aterrizatu genuen edo ez, baina hemen ikusten dugu 21 hilabete beranduago, oraindik kontratuak berriro ere esleitu gabe daudela.

“Kontratazioak modu zuzenean egiten ari gara. Behar bezalako prozedimenduak jaso gabe. Eta ez dio EAJak, dio, kasu honetan, teknikariaren txostenak. Orduan, guk bai eskatu, mesedez ahalik eta lasterren egoera guzti hau erregularizatzeko. Eta badakit esango duzuela horretan ari zaretela, laster egongo direla aldaketak, baina erantzun berdina izan zen aurreko plenoan, aurreko batzordean, aurreko plenoan. Beraz, nik uste dut konpromisoetatik ekintzetara pasatzeko garaia dela eta ejenpliaridade hori kudeaketan aplikatzeko. Zer egiten dugun ta nola egiten dugun, ez?”

Jarraian, Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Zerrenda horretan, aipatzen duzuen bezala, sei kontratu daude amaituta, dagoeneko, bat, pasa den astean Tokiko Gobernu Batzordetik pasa zan eta lizitazio egoeran dago. Aurreko batzordean kultura teknikariak azaldu zuen ze plazotan aurreikusten zen Basteroko Kulturgunearen kudeaketarena.

“Jakin, badakizue lanean ari garela Gizarte Zerbitzutan ere. Pasa den astean hasi zen arduradun berria eta seitik bostera murriztu dugun bezela hilabete honetan, gure helburua da hurrengo hilabeterako zerrenda hori murriztagoa ekartzea.”

Berriro ere, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, me sorprende escuchar de boca del Sr. Alcalde que la pasada semana pasó por la Junta de Gobierno Local una licitación.

“Creo que ha quedado más que dicho, que todas las licitaciones que se llevan a la Junta de Gobierno Local tienen que pasar previamente por los grupos municipales aquí presentes. Entonces, me asombra que una vez más, no solamente estéis incumpliendo lo que vosotros mismos dicen, sino que encima no nos lo pasan, por favor, hacednos llegar esa documentación, pasó el otro día, lo trasladé en Servicios Sociales con una licitación, y lo importante que es que nos la pasaseis, porque han incluido criterios que van en contra de cualquier lógica.

“Entonces, esa documentación nos la tienen que enviar, y es un compromiso que adquirieron ustedes. Y no nos la habéis pasado. Por lo tanto, espero que en cuanto acabe el pleno nos pasen la información cuanto antes.”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Esan bezala, pasa den asteko Tokiko Gobernu Batzarrean, pasa zen lizitazio hau, eta guk aurreko batzordean esan genizuen, hemendik aurrerako, nahiz eta, prozedura, legez, gaur egun daukagun antolaketa berriarekin ez da zertan batzordetik pasa behar . Guk pasako genizkizuela dokumentazioak. Eta hemendik aurrera konpromiso hori hartuko dugu eta beteko.”

Alkain jaunak, erantzuten du:

“Baina, konpromisoa hartuta dago. O sea, ya no vale de aquí en adelante. Es que el compromiso está tomado, y estamos cansados de estar repitiendo una y otra vez que se nos pase la documentación. Y como se nos tiene que pasar, y no lo hemos decidido nosotros, lo han decidido ustedes. Ustedes son los que han dicho, se va a hacer así, así y así.



“Y, si el nuevo sistema del ayuntamiento, de gestión, que han puesto en marcha no funciona, habrá que darle una vuelta y habrá que valorarlo. Pero lo que no puede ser es que nos enteremos aquí que ustedes aprueban cosas, que ni se nos informa, ni se nos da cuenta. Ya vale.”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Amaitzeko, nik dakidanez, alderdi guztiak dakizue Tokiko Gobernu Batzordeko gai zerrenda zein dan eta bertan zer onartzen dan. Eta honekin amaitutzat ematen dugu puntu hau.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, esan behar dugu oposizioko alderdiok ez daukagula zertan ibili behar Tokiko Gobernuan begiratzuz ostiralero, aber ze pasatzen den edo zer ez. Zuek konpromezua hartu zenuten, eta ez orain baizik udazkenetik, batzordeekin, batzorde kudeaketa honekin, berri honekin, lizitazio eta esleipen guztiak elkarbanatuko dituzuela.

“Eta bueno, zoriondu behar baldin bada lizitazioa martxan jarri delako, ba oso ondo, hala bedi, baina nik uste dut panorama ez dela kohetea botatzeko modukoa. Egoera ilun dago eta interbentoreak dio, ez diogu guk, beraz, nik uste dut, joe, desde luego, ez da begiratu behar Tokiko Gobernu Batzordea, hombre, hombre, eh, konpromezu batzuk hartu baditugu, oposizioko alde guztiakin landuko ditugula, ekarriko ditugula batzordetara, komentatuko ditugula. Joe, bueno, nik uste dut....eh, hori betetzeko dela.

“Ez da, egunero, egunero, edo, astero ibiltzeko Tokiko Gobernuan, aber sorpresa, gaur zerekin topatze garen? Eta azkenaldian tamalez hola gabilta. Eta batzorde guztietako aktak ikusten badituzue, berdin zait, lurraldekoa, herritarrekoa edo ari gera jada pelmak izaten, ze jada, beti, hilabetero, hilero ere, hitzarmenak bidali, lizitazioa konpartitu, o sea, beti berdina errepikatzen. Beraz, nik bai utzi nahiko nuke oposizioa egiteko ere behar ditugula baldintza duin batzuk, ze zuek erreklamatzeko zenuten orain dala lau urte, \_para hacer una oposicion digna, necesitamos información. Pues el resto también necesitamos esa informacion\_.”

Parte-hartze gehiagorik ez da izan, beraz, Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

## 2. 03/2025 zk.ko Kreditu aldaketa espedientea onartzea.

“Kreditu gehigarrien (Sarekon 2025-KALD-000004-00) bidezko kreditu aldaketaren 2025/03 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena”

Besteak beste, kontuan izanda:

- Sustapen ekonomiko, enplegu eta gazteriko proposamena; La Salle Berrozperekin lankidetzaz hitzarmenarentzan aplikazio berri bat sortzeko (6.000,00.-€)
- Kiroletik proposatzen diren hainbat inbersio, konponketak eta hitzarmenak (323.867,00.-€)
- Udaleko aseguru pribatuak kontratatuzko plegu berria atera behar dela eta aplikazioan ez dagoela nahikorik (35.000,00.-€)

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak ikusita non bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 29. eta 34. artikuluetan ezarritakoarekin.

Era berean, Antolaketa Batzorde Informatzaileak 2025/05/21(e)ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kreditu aldaketa honetan, kopurua guztira, 364.867 eurokoa da, hiru zati ditu. Bata da, La Salle Berrospe ikastetxearekin, daukagun, 6.000 euroko hitzarmena, herrigunean, egingo diren hainbat lan egiteko, bestea, Sorabillan, aste honetan jarri duten barandila edo beste ludotekako hainbat lan eta abar.

“Bestetik, 35.000 euroko kreditu aldaketa bat dago, aseguru pribatuen diru partida handitzeko. Izan ere, eguneratu gabe zegoen zerrenda eguneratu egin da. Bertan, zerrendan ez zeuden hainbat eraikin sartu dira, Goiburuko frontoia esate baterako eta abar. Eta horrek erakarri du 35.000 euroko igoera bat, eta hori txertatuko dugu.

“Eta azkenik, 323.867 euroko kreditu aldaketa bat kiroldegiko hainbat lanetarako. Hemen alde batetik



daude kirol makinak erosteko, eta bestetik, kiroldegia ixten denean, udako eten horretan, egingo diren, bueno, ba aldagelak eta egingo diren hainbat lan egiteko izango da kreditu aldaketa hau.”

Jarraian, proposamena eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, por un lado, con respecto al modificativo de crédito, quería recordar cuál fue la postura del partido socialista con respecto a la situación del polideportivo.

“Ya lo explicamos en enero, cuando presentamos nuestras propuestas para los presupuestos, y ya lo dijimos entonces, el polideportivo necesita un obrón, y no lo dijo el partido socialista. Son palabras textuales del arquitecto municipal. Por lo tanto, en base a ello y a las dudas que nos trasladó en una comisión el arquitecto municipal, de que tenía serias dudas de que cumpliera la legalidad energética de cara a 2030, desde el partido socialista propusimos ampliar a 300.000 euros la partida para los trabajos de rehabilitación, mantenimiento y conservación de las instalaciones del polideportivo, para que desde el día siguiente a la aprobación definitiva de los presupuestos se diese inicio a los trabajos más urgentes.

“Por otro lado, propusimos destinar 1.500.000 euros del remanente para un plan de inversión para la rehabilitación integral de las instalaciones actuales del polideportivo, como son los vestuarios, las gradas, la climatización e instalaciones.

“En definitiva, lo que proponíamos era un plan, un plan paralelo para la construcción, junto con la ampliación. De todos es conocido que estas dos propuestas EH Bildu las rechazó, y, sin embargo, ahora nos presentan a mitad de año, cuando el crédito se va a disponer. Bueno, estamos a finales de mayo, prácticamente primeros de junio, dispondremos el crédito, si no me equivoco en verano, en julio, una propuesta de 253.000 euros en la partida 28 para dichas acciones, que son las más necesarias del Ayuntamiento y creemos, por lo tanto, que justamente el modificativo que nos traéis para las instalaciones polideportivas llega tarde, y que no es suficiente. Pero consideramos también que cualquier euro que se invierta en el polideportivo es más que necesario y urgente.

También me gustaría recordar uno de los compromisos que adquirió el señor Alcalde en dicho pleno y fue que nos pasaría el planning de la remodelación del polideportivo junto con el organigrama, con las necesidades de inversión. Pues, bueno, seis meses después seguimos esperando a recibirlo, seguimos sin conocerlo. No sabemos. Pues, bueno, ni tenemos ni siquiera un planing, pero son, repito, palabras que usted dijo textualmente.

“Y no voy a entrar a calificar las acciones que estaban ustedes proponiendo, utilizando las mismas palabras que ustedes utilizaban para calificar, cuando en la pasada legislatura, desde este, desde el anterior gobierno municipal, se hacía cualquier actividad en el polideportivo, y era que se debían a parches. No sé si esto son parches para ustedes, o esto es la obra que necesita el ayuntamiento, pero, desde luego, el tiempo pone a cada uno en su sitio.

“Y también, pues, bueno, quería apelar un poco a la seriedad del cumplimiento de los compromisos, que nos pasen de una vez por todas, cuál es la planificación para el polideportivo.

“Y por otro lado también, pues, bueno, queremos ser críticos. Hemos visto que dentro de las partidas desglosándolas, vemos una de, bueno, dotada con 8700 euros para el Plan de Legionela, y lo que nos sorprende es que cuando se elaboró el presupuesto nadie tuviese en cuenta algo tan importante como era el Plan de Legionela y que tengamos que meterlo, repito, a mitad de año. Y luego, por seguir un poco con toda la marabunta de estudios que estamos llevando y poniendo y poniendo en marcha en el ayuntamiento, vemos también que destinan ustedes 6.655 euros para el Plan de Miranda.

“¿Qué más hace falta en Miranda? Dejamos puesto en marcha un estudio en la pasada legislatura para ver qué se hacía en el paseo de Miranda. Ustedes se pusieron con él, han preguntado a la ciudadanía, han realizado encuestas, nos han pasado, se han hecho actividades en Bastero, nos han dado 1000 opciones, ¿qué más planes necesita este equipo de gobierno, necesitan que venga una empresa de fuera y os diga, oye, hacer esto, esto y esto. ¿Es lo que necesitan? Ya se ha consultado a la ciudadanía, ya nos han dicho qué se puede hacer y qué no, ¿qué más hace falta? Y creemos que no deja de ser más que otro plan. Pues, bueno, una excusa más para no hacer nada, dilatar las cosas en el tiempo. Y realmente, creemos que esos 6.655 euros más que en un segundo plan podrían haberse invertido en renovar, por ejemplo, los bancos



de dicho paseo, que están, todo sea dicho, y ya de paso que está el concejal de Servicios, destrozados. Que mejor hubiera sido destinar ese importe a los bancos. Luego me dirán, me dirán ustedes que estoy haciendo populismo, pero es la verdad.

“Y, bueno, en ese sentido, también deciros que, bueno, trasladaros que nos vamos a abstener en este modificativo, vemos también que hay otras partidas que son importantes. Consideramos que el convenio con La Salle o el destinar un importe mayor para el seguro es necesario, y, como digo, todo lo que se destine al polideportivo es poco, así que, por lo tanto, bueno, damos por bienvenidos los 300.000 y pico euros que se van a destinar.”

Alkate jaunak, hartu du hitza eta honakoa erantzun du:

“Argitze aldera, legionelarena. Orain arte kiroldegiko giza baliabideekin egin da eta dauden aldaketengatik, ezin da, ezin da jarraitu kiroldegiko udal langileen bidez egiten. Horregatik, hori ezin zitekeen aurreikusi urtarrilean, zeren aldaketak orain eman dira. Hori batetik, eta bestetik, Miranda pasealekuan, gertatu da, jarriko dugula martxan herritarrekin batera egin zen prozesuaren ondoren ekintza plan bat, herritarrekin batera hartu ziren erabakiak edo egingo dira gauzatuko dira ekintza plan horren bidez.”

Berriro ere, Alkain jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Vuelvo a repetir que estamos con planes de por un lado, por otro, con esto, o sea, ya se ha preguntado a la ciudadanía y tenemos ejemplos de contratos menores que se están haciendo en todos los departamentos. Me refiero y lo trasladé el otro día en la Comisión de Cultura, no sé cuántos contratos llevamos para gestionar la Mesa de Cultura, para hacer la agenda bateratua y casi dos años después no tenemos noticias de la misma.

“Yo no sé cuánto dinero hemos invertido en contratos menores en dos años, pero los resultados no se ven y eso es una realidad. Y si se ha hecho ya un plan, no vale que hagamos ahora uno, ahora otro, y luego ¿cuál va a ser el siguiente, si lo único que hace falta es que el equipo de gobierno decida cuál es la prioridad y en qué hay que invertirlo. Y luego, pues, bueno, ya que estamos hablando de este tema y de esta partida, pues también nos sorprende el que, visto cómo está la partida destinada para las reparaciones del polideportivo, ustedes hayan metido ahí un gasto, que nos hemos enterado por terceros, no porque ustedes hayan dado cuenta de ello, como es el alquiler de un tercer pabellón, que lo han destinado ahí. O sea, tenemos la partida, estamos metiéndole dinero y le están metiendo ustedes gastos que en el Pleno pasado se aprobó que iban a ir a Cultura. ¿O sea, cómo puede ser que ustedes estén gestionando de esa manera?”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Zuk oso ondo dakizu Alkain jauna, hemen esan dezakezu. Batsilergo pabiloia urtetan Andoingo udalak erabili duena biltegi moduan, musikarien ensaiotarako gunetzat, hori hustutzen ari gara eta orain askoz ere merkeago Andoingo udalak eskuratu du beste pabiloi bat. Hura hustu bitartean lekua behar dugu eta hor, pabiloi berri horretan joango dira musikariak.

“Bide batez esan beharra dago, orain arte ez bezela, hitzarmen baten baitan eta modu ordenatu eta arautu batean, joango dira buruhandi eta erraldoiak eta joango dira Txirrindulari Eskolakoak.

“Txirrindulari Eskolakoak behar dute leku bat eta hori batzordean esplikatu genuen eta handik atera behar dutenez, eta behar dutenez leku bat, eta kirol elkarte bat danez, Kirol Saisetrik egingo da hilabete hori ordaindu pabiloia eta Txirrindulari Eskolakoek izango dute bere autoak gordetzeko eta bere tresna guztiak gordetzeko leku bat. Hori batzordean esplikatu genuen bai politikoez eta bai kiroletako teknikariak.

“Orduan, ba nahi duzuna esan, baina esan nahi dizut ari zarela nahastu nahiean eta Batsiler hustutzen da, Hidroneuma hartuko dugu eta bien bitartean, Txirrindulari Eskolak behar duen behar baterako, kiroletako partidatik, ulertuko dezun bezela, Txirrindulari Eskolako gastu bat kiroletik atera behar da. Ba hortik ateako da zehazki esanda, 3.000 euroko partida bat haiek pagatzeko. Hoixe da dena.”

Berriro ere, Alkain jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, como usted ha sacado el tema de los pabellones, pues vamos allá, no tenía pensado sacarlo, pero bueno, vamos a hablar de ello.



“Usted aquí en enero, en el pleno de presupuestos, nos vendió cuánto redujeron la partida de alquiler de los pabellones y así lo dijo y así está recogido en acta, que en abril dejábamos el pabellón de Bachiller.

“Estamos a mayo, y no solamente se está pagando todavía el pabellón de Bachiller, sino que cuál es nuestra sorpresa, que pese a que ustedes han alquilado otros dos pabellones más este mes nos hemos encontrado con una notificación notificando a los dueños de Bachiller que por condiciones del contrato, hasta el uno de enero de 2026 vamos a tener que seguir pagándolo.

“El Premio Nobel de Economía no se lo van a dar a ustedes. O sea, eso está claro y ya les digo. Y ya, bueno, me puedo imaginar que si no es el mes que viene será el siguiente, tendremos aquí un modificativo de crédito para pagar lo que ustedes decían que no íbamos a pagar y que nos va a tocar pagar, que va a ser el pabellón de Bachiller, el nuevo pabellón de servicios y el nuevo pabellón de Hidroneuma. No sé si es que no lo sabían, no lo conocían. Entiendo que antes de alquilar otros pabellones ustedes leen las condiciones de lo que tienen entre manos, y saben que existen penalidades y que existen condiciones.

“Y que en mayo seamos concededores, no porque nos lo hayan dicho ustedes, sino porque lo hayamos visto en el registro, que hay una condición de que tenemos que tener el pabellón de Bachiller alquilado hasta el uno de enero de 2026. Hombre, clama al cielo, ya les digo, el tiempo nos dará la razón, y el mes que viene, o el siguiente, traeremos aquí un modificativo de crédito, porque no habrá dinero en la partida.”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Ikusi duzuen jakinarazpena formalismo kontua da, esan genizuen bezala Batxilerreko nagusiekin harremanetan gaude, kontratu hori mozteko. Momentu honetan Batxiler hustutzeko jada musika taldeak bakarrik falta dira, eta hori egiten denean Batxilerreko pabiloia hustuta geldituko da.”

Alkain jaunak dio berriro:

“Pero cómo podéis hablar de formalismos, cuando es algo que deberían haber hecho ustedes en enero o en diciembre. Que el contrato lo pone igual, que no es un formalismo.”

“Bai, bai, que le entiendo perfectamente, lo que tengo dudas es de si ustedes lo entienden o no lo entienden. Porque aquí se nos dijo que Bachiller se dejaba en abril, y el importe de la partida era hasta abril, y ahora vamos a pagar los 13.000 o 14.000 euros de mensualidad de Bachiller, los 6.000 y pico del otro y los 3.500 del pabellón de cultura.

“Y eso es así, y ustedes lo han vendido como la panacea del dinero que nos vamos a ahorrar. Pues de momento ya se pueden dar ustedes prisa, prisa para que eso no pase.”

Jarraian, Mikelez andreak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, jada ez dakit, kreditu modifikatiboakin ari ginan, ez dakit jada ahaztuta daukagun gaia.

“Bueno, gure aldetik komentatzea pixka bat kokatzearren. Bai. Ba bueno, hau badatorrela ere bai, EAJk gobernuarekin eduki zuen aurrekontu negoziaketetik, hainbat elkarrizketetatik eta zehaztu genituen hainbat inbertsio prioritateak zirela eta horien artean ba kiroldegiko obra aipatzen zan.

“Orduan, obra gainera, orokorra. O sea, zaharra berritu eta obra berria egin edo zabaltze lanak. Orduan, ba testuinguru horretan, gaur datorren modifikatibo hau instalazio horien, bueno, beharrak eta duintasuna bermatzeko ildotik dijoanez, ba bueno, gure aldeko bozka edukiko du, erabiltzaileak denbora luzez eskatzen ari diren eskaerei erantzuteko.

“Beste alde batetik, badaude beste hainbat proiektu, bere garaian negoziaketen barruan izan genituenak, oraindik, gaur egun, ez daukagu informazioa horien inguruan. Ez dakigu nondik hornituko diran partida horiek eta abar. Orduan, ba aipatzearren eta bueno, geatzearren argi, honakoak dira: zabaltze obrak Aiurraldegi Kiroldegikoak, udal liburutegia berria erosteko partzelaren partida hori eta baita ere Illarramendiko, ba zea eraikitzeako, obrak eta abar.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien abstentzioarekin, honakoa erabaki du:

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien



modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	303.467,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	17.900,00
6	INBERTSIO ERREALAK	43.500,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>364.867,00</b>

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	364.867,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>364.867,00</b>

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

3. 2025. urterako taxien hiri tarifak onartzea.

Ikusirik Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolakuntzarako Diputatuak 2024ko abenduaren 23an emandako Foru Agindua bitartez, onartu zuela Donostialdeko erregimen bereziko eremuaren sorrera, turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri barruko edo herri arteko garraio publikoaren zerbitzua eskaintzeko. Aginduan esaten da Donostialdeko erregimen bereziko eremuko udalerrri guztietan (San Sebastián, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Lezo. Oiartzun, Pasaia, y Errenteria) tarifa bera ezarriko dela zerbitzuaren arabera.

Ikusirik sektoreko elkarteek Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremua osatzen duten udalei aurkeztutako proposamena, non tarifei %5,02ko igoera aplikatzea proposatzen den.

Ikusirik hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak 2025eko maiatzaren 12an egindako txostena.

Ikusirik, era berean, Lurraldea Batzorde Irizpenemaileak 2025eko maiatzaren 19an emandako aldeko irizpena.

Alkate jaunak, hartu du hitza eta honako azalpena eman du:

“Dakizuen bezela, taxien zerbitzurako Donostialdeko erregimen bereziko eremua izendatu da. Hau da, eremu horretan, Donostiko taxiez gain, bai Oarsoaldeko eta bai Buruntzaldeko taxiak ere egongo dira eta eremu bateratua denez, prezioak ere bateratuak izan behar dute eta gaur hona ekartzen duguna da, Donostialdeko erregimen berezi horretako prezio bateratuaren proposamena.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartze gehiagorik izan ez denez, horrenbestez, Udalbatzaren Osoko Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos, udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honako erabakia hartzen du:

1.- 2024. urterako taxi zerbitzuaren hiri-tarifaren proposamena onartzea, onartutako tarifak hauek direlarik:

TARIFA 1			TARIFA 2			TARIFA 5		



Gutxieneko tarifa Tarifa mínima	Egindako kilometroa Kilómetro recorrido	Itxarote ordua Hora espera	Gutxieneko tarifa Tarifa mínima	Egindako kilometroa Kilómetro recorrido	Itxarote ordua Hora espera	Gutxieneko tarifa Tarifa mínima	Egindako kilometroa Kilómetro recorrido	Itxarote ordua Hora espera
6,263909	0,879699	25,540059	7,257320	1,364838	34,053411	7,272605	1,412608	35,245199

Gutxieneko tarifak 1,5 km-ko ibilbidea edo bost minutuko itxaronaldia barne hartzen du

- (1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da
- (2) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. Era berean, II. Tarifa 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da igandeetan ea Autonomia Erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere
- (5) Tarifa hau ostiral, larunbat eta jai-bezperetako 22:00etatik larunbat, igande eta jaiegunetako 07:00etara aplikatuko da

2.- Tarifak onartuak izan ondoren, espediente administratiboa eta hartutako erabakiaren ziurtagiria, udal idazkariak emandakoa, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Komertzio eta Kontsumo departamentura bidaltzea, Prezioen Batzordeari bidal diezaion.

**4. Andoingo Axeri Dantzari babesa emateko adierazpen instituzionala.**

Ikusirik, Herritargoko Batzorde Irizpenemaileak 2025/05/20(e)ko bileran emandako irizpena.

Lasa andreak, Hezkuntza eta Kultura Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, adierazpena aurkezteko:

“Arratsalde on denoi.

“Andoingo Azeri dantzaren berreskurapenaren 50. urteurrena eta emakumearen sarreraren 25. urteurrena direla eta, udala osatzen dugun alderdi politiko guztien artean adierazpenaren aurkezpena egingo degu.”

“Ongi etorriak.

Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, eta adierazpena irakurtzeari ekin dio:

“Andoingo tradizioaren eta nortasunaren esentzietako bat da Azeri dantza. Irudikatzen gaitu, bizitzen dugu, dantzatzen dugu eta harekin gozatzen dugu. Dantza herrikoa eta pertsonen batasuna da gure udalerriko dantza bakarra eta eksklusiboa ez den arren, bere berezitasunak, ezaugarriak eta singularitatea direla eta, kultur aktibo gisa, gure lurraldean, historian eta ondarearen errotu arazten gaitu.”

Jarraian, Mikelez andreak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, jarraitu du aurkezpenarekin:

“Gainera, lehen mailako kultura herentzia da eta hurrengo belaunaldiei aztertzen eta transmititzen jarraitu behar dena, inoren ahalegina eragotzi gabe. Andoingo kultur eragileek, herriko elkarteek eta herritarrek bultzatu dute Andoingo Axeri dantza Euskal Herri osoan eta kanpoan aitortzea.

“Ahalegin kolektibo horrekin bat egin dute Andoingo Udaleko gobernuek eta izen handiko erakunde akademikoek.”

Jarraitzen du, Iparraguirre jaunak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eleduna:

“Andoainen gure ekitaldi tradizional eta go gogoratuenak Axeri dantzaren emanaldiarekin es estuki lotuta daude.

“Andoingo kultur taldeen ahaleginari esker gure kultur ondarea berreskuratu dugu, jai ekitaldiak antolatu ditugu eta beste eskualde batzuetako jaialdietan parte hartu dugu.

“Talde horiek dira gure historiaren zati honen zaindari eta transmisoreak.”

Berriro ere, Lasa andreak, hartu du hitza eta jarraitu du irakurketarekin:

“Eta horregatik Andoingo udalak Andoingo Axeri dantzaren berreskupe berreskurapenaren 50. urteurrena eta emakumearen sarreraren 25. urteurrena direla eta, Andoingo kultur eragileek Asier iraintza

“Irmo adierazten du. Axerirantza Andoingo udalerriko kultura ondasun inmaterial inmaterial gisa babesten dela, Unescoren Kultura Ondare Inmaterial Inmateriala Babesteko Konbentzioaren arabera.

“Eta bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkie 50 urte hauetan Andoingo Axeri dantza bizirik mantentzen lagundu duten guztiei. Guzti horregatik, eskerrik asko.”

Jarraian, Alkate jaunak Axeri Dantza taldeko kideei hitza hartzeko aukera luzatu die.

Idazkari jaunak, aditzera eman dio ordezkariari, ukatu ezean ulertzen dela baimena ematen duela



streaming bidez bere irudia eta ahotsa transmititzeko.

Jarrian, Axeri dantza taldearen izenean ordezkari batek hartu du hitza.

Berriro ere, Mikelez andreak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nere izenean, pertsonalki eta baita taldearen izenean.

“Lehenik, eskerrik asko askotan entzun duzue, baino bueno, beste behin, zaintzeagatik, kaleratzeagatik eta abar askorengatik.

“Ez dut errepikatuko idatzian eta adierazpenean esan diren detaile kulturalak eta abar, ze gaizki geldituko naiz, baino, bai aipatu nahi dut zerbait ez dagoena hain agerian, ez dakit, ez dena ikusten edo gehiago, sentitzen dena, ez?”

“Orduan nik esango nuke ba, bai, Axeri Dantzak uztartzen ditula bai kultura, bai festa giroa eta baita herria bere osotasunean. Kultura. Argi dago, euskal dantza da, hori esan dut, ez dudala detaile gehiago emango, gero festa giroa, festa sana gainera, ritual bat da. Goizetik ateratzen da, hamaiketako egiten da, dantza, gero atsaldean ere juergak jarraitzen du.

“Jendea konprometitua dago juerga horretara. O sea, jendeak jasotzen du eguna, \_de propio\_ eta bestea herria, herria bere osotasunean.

“Axeria kolore gorriarekin identifikatzen da, baino da talde bat kolore asko dituen, dauzka gizon eta emakumeak. Aipatu dezuten bezela, 25 urte. Zorionak. Nerabeak, gazteak. Gero gazteagoak deitzen diren hoiek ere bai. Baina beti ba komunean Axeri izatea dagola, ez? Eta pozgarria da, hain ekintza ximplea eta aldi berean jendetsua, ba gaur egun oraindik posible izatea eta ba guztiontzako lekua edukitzea.

“Bueno ba besterik gabe. Hitz hauek esan eta bukatutzeko, berriro ere eskerrak emanez, opa dizuet ere Axeri dantza beste hainbat urte bizirik jarraitzea eta bitartean Axeriak dioten bezela, itzaletik ibili.”

Jarraian, Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Ia dena esanda dago, baino nik, esaldi labur bat. Axeri dantza, nik uste dut ondarea da, tradizioa da, baina asmatu duzue belaunaldi berriak erakartzen eta gure taldeak behintzat, sekulako balioa ematen dio horri. Asmatu duzue. Jende gaztea irrikitan dago Axeri Dantza eguna iristeko eta Axeri Dantza dantzatzeko eta hori, gaur egungo testuinguru honetan, hori lortzea, dantza tradizional batekin sekulako lorpena da eta zorionak.”

Jarraian, Alkain jaunak udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, ya está prácticamente todo dicho, está todo recogido en la declaración institucional y por parte del grupo municipal socialista únicamente trasladaros nuestra enhorabuena, nuestra felicitación y nuestro agradecimiento por el cariño con el que durante todos estos años habéis trabajado para mantener viva esta tradición local.

“Y también, pues, bueno, animar a toda la ciudadanía a que participe en todos los actos que con motivo de dicho aniversario estáis organizando con mucho cariño, con mucho mimo, y también nos consta que con mucho esfuerzo. Mila esker.”

Jarraian, Iparragirre jaunak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“ Nik ere zerbait esan beharko dut. Obligatu egiten didate. Zorionak 50 urteengatik., desio dizuet beste 50 betetzea, behintzat nik ez dut ikusiko, baino seguru gure gazteek ikusiko dutela eta oso pozik ospatuko dutela. Mende osoa betetzea. Eskerrik asko.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak adierazpena bozketara jarri du eta, Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Udaleko alde eta talde politiko guztiek adierazpen instituzional bat onartzea, Andoingo Axeri dantza herriko kultura-ondasun immaterial gisa babesteko honakoa diona:

“Andoingo Axeri Dantzaren berreskurapenaren 50. urteurrena eta emakumearen sarreraren 25. urteurrena direla eta

“Andoingo tradizioaren eta nortasunaren esentzietako bat da Axeri Dantza. Irudikatzen gaitu, bizitzen dugu, dantzatzen dugu eta harekin gozatzen dugu. Dantza herrikoa eta pertsonen batasuna da. Gure udalerriko dantza bakarra eta eskusiboa ez den arren, bere berezitasunak, ezaugarriak eta



singularitatea direla eta, kultur aktibo gisa, gure lurraldean, historian eta ondarean errotu arazten gaitu.

“Gainera, lehen mailako kultura-herentzia da, eta hurrengo belaunaldiei aztertzen eta transmititzen jarraitu behar dena, inoren ahalegina eragotzi gabe. Andoingo kultur eragileek, herriko elkarteek eta herritarrek bultzatu dute Andoingo Axeri Dantza Euskal Herri osoan eta kanpoan aitortzea. Ahalegin kolektibo horrekin bat egin dute Andoingo Udaleko gobernuek eta izen handiko erakunde akademikoek.

“Andoainen, gure ekitaldi tradizional eta gogoratuenak Axeri Dantzaren emanaldiarekin estuki lotuta daude. Andoingo kultur taldeen ahaleginari esker, gure kultur ondarea berreskuratu dugu, eta jai ekitaldiak antolatu ditugu eta beste eskualde batzuetako jaialdietan parte hartu dugu. Talde horiek dira gure historiaren zati honen zaindari eta transmisoreak.

“Horregatik guztiagatik, Andoingo Udalak, Andoingo Axeri Dantzaren berreskurapenaren 50. urteurrena eta emakumearen sarreraren 25. urteurrena direla eta:

- “Andoingo kultur eragileek Axeridantza zaintzeko, irakasteko eta interpretatzeko egin duten ahalegina, ikerketa eta ilusioa aitortzen ditu, baita dantza tradizional horri esker beste leku batzuetan lur honetako jendea irudikatzea ere.

- “Irmo adierazten du Axeri Dantza Andoingo Udalerriko Kultura Ondasun Immaterial gisa babesten dela, UNESCOren Kultura Ondare Immateriala Babesteko Konbentzioaren arabera.

- “Andoingo kultur elkarte eta eragileekin ahaleginak bateratzeraz animatzen du, herri-dantza hori babesten eta defendatzen jarraitzeko.

- “Eskerrak eman nahi dizkie 50 urte hauetan Andoingo Axeri Dantza bizirik mantentzen lagundu duten guztiei.”

2.- Interesdunei akordio honen berri ematea.

## 5. PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeek urkeztutako mozioa, Palestinako egoerari buruzkoa.

Idazkari jaunak, hartu du hitza, honakoa azaltzeko:

“Bueno, gaur bertan Elkarrekin Podemosek beste mozio alternatibo bat, aurkeztu du erregistrotik”

Jarrarian, Lainez andreak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza eta mozioa irakurri du, honakoa diolarik:

“Bai, bueno, arratsalde on guztioi eta mozioa irakurri baino lehen bakarrik aipatzea hasieran alderdi sozialistak aurkeztu zula eta azkenean EAJ gehitu egin da eta alde hortatik ba eskerrak eman nahi dizuegu ekarpena egiteagatik eta elkarrekin egindako lanagatik.

“Moción sobre la situación de Palestina durante las operaciones militares israelíes en Gaza, que comenzaron tras los terribles ataques de Hamás del siete de octubre del año 2023 que constituyen crímenes de guerra y en los que la organización asesinó a más de 1250 personas y secuestró a más de 250 rehenes. Israel ha puesto en marcha innumerables acciones encaminadas a causar un daño irreparable a la población palestina.

“Urtebete baino gehiago da mundua Gazako Zerrenda okupatuaren heriotza eta suntsipen maila pentsaezinaren lekuko dela. Israelek Gazako palestinarren aurka egindako eraso bortitzak dozenaka mila pertsona hil ditu, familia osoak desagerraraziz, bizitegi auzoak suntsitu ditu, azpiegitura kritikoak suntsitu ditu eta 1,9 milioi palestinaren lekualdatu. Gazako Zerrendako biztanleriaren % 90a baino gehiago, aurrekaririk gabeko hondamendi humanitarioa eraginez.

“Mientras el mundo mira, Israel ha roto unilateralmente el alto el fuego y sigue cometiendo ataques implacables con impunidad que causan la pérdida incesante de vidas palestinas mientras la desesperada catástrofe humanitaria en Gaza sigue empeorando, agravando aún más, si es posible la situación, la ONU acaba de advertir que 14.000 bebés sufren desnutrición grave en la franja.

“El Ayuntamiento de Andoain pide lo que la sociedad de Andoain lleva pidiendo a gritos desde hace un año:

“1.- Condenar el brutal ataque perpetrado por Hamás el siete de octubre del 2023.

“2.- Condenar de manera firme y sin matices el genocidio perpetrado contra la población civil palestina en Gaza.



“3.-Berehalako su eten iraunkorra, indar militarrek lurralde okupatuetatik erretiratzea eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa, nazioarteko ebazpenak eta giza eskubideak erabat errespetatzea, erabat errespetatzea eskatzea.

“4.- Gertakarien larritasunaren aurrean jarduteko eta Israelekin duen akordio komertzial eta politikoa berrikusteko eskatzen diogu Ebri.

“5.-\* Que se garanticen las vías seguras para la entrada de ayuda humanitaria en la Franja de Gaza, levanten, el bloqueo inhumano e ilegal a este territorio y pongan fin a la ocupación del territorio palestino, poniendo en práctica la opinión consultiva de la Corte Internacional de Justicia de julio del 2024, que declaraba ilegal la ocupación por Israel de Gaza y de Cisjordania, incluida Jerusalén Oriental.”

Jarraian, Fernández andreak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, mozioaren edukia irakurtzen jarraitzeko:

“6.- Europar Batasunak bere eragina eta boterea giza eskubideen, justiziaren eta kontuak ematearen alde erabiltzea. Zehazki, Genevako hitzarmenak errespetatzen direla bermatzea. Hitzarmen horiek, gutxienez, eskatzen dute estatu guztiek eten ditzatela gatazkan parte hartzen duten aldeei egiten zaizkien arma transferentziak, nazioarteko zuzenbidea urratzeagatik kontuak ematea bermatzeko lankidetzan aritzea eta nazioarteko erakundeek eta mekanismoei laguntzea eskatzen dute Nazioarteko Zigor Gorteak eta Nazio Batuen Erakundearen Ikerketa Batzordeak Palestinako lurralde okupatuari buruz egindako ikerketak barne.

“7.- Europar Batasunak Gazan presentzia militar iraunkorra ezartzeko mugak aldatzeko edo palestinarrak Gaza edo Zisjordaniatik kanporatzeko edozein ahaleginen aurka agertzea, eta nahitaezko lekualdaketa hori Genevako laugarren hitzarmenaren urraketa larria dela eta gerrako krimena dela onartzea.

“8.- Andoingo udaletik, Ekialde hurbileko Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziaren premiazko eta beharrezko lana babesten dugu, larrialdi humanitarioko arrazoietan oinarrituta.

“9.- Andoingo herriak elkartasun aktiboa adieraztea Palestinako herriarekiko eta munduko gerren eta indarkeria militaristaren biktima guztiekiko.

“Azkenik, 10.- Akordio honen berri ematea Gobernuko Presidentziari, Kanpo Arazoetako Ministerioari, Europako Parlamentuari, Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziari eta gizarte eta giza eskubideen aldeko erakundeek.”

Jarraian, Arriola andreak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa adierazteko:

“Arratsalde on, EH Bildutik adierazi nahi dugu une honetan Gazako genozidioa salatzeko unea dala eta gainera urgentziaz. Uste dugu momentu honetan aukera bat galtzen dugula horrelako tragedia baten aurrean, genozidio baten aurrean adierazpen bateratu bat ez onartzen eta zoritxarrez, alderdi interesak lehenetsi direla deklarazio bateratu baten aurretik.

“Guk argi daukagu ez dela mozio desberdinen artean dantzan ibiltzeko momentua, ez? Elkarrekin Podemosek ere aurkeztu du, zuek aurkezten duzue bat, Podemoskoarekin ere ados gaude, baina PSE-EE eta EAJren mozioarekin baditugu desadostasun batzuk. Batez ere urriaren zazpiko erasoak aipatzen direlako bere garaian, duela jada bi urte, bueno, urriak zazpian EH Bilduk irmoki salatu eta gaitzetsi zituen eraso horiek eta gaur egun ere berdin pentsatzen jarraitzen dugu, baino gaur, gatazkaz ari gea, Gazako genozidioaz, 50.000 palestinarren hilketaz, 2 milioi pertsonen gosetarekin, egoera katastrofikoan eta ezin ditugu, barkatu, bi gertakari horiek nahastu eta ezin ditugu bi gertakari horiek maila berdinean jarri edo testu berean jarri, behintzat, gure ustetan, ez da bidezkoa eta gainera, uste dugu ez duela bat egiten errealitatearekin.

“Baina bueno, hau esanda ere, badakigu Palestinako herriak ez ditula mozio desberdinak behar, ez duela desadostasunik behar eta Palestinako herriak oraintxe bertan behar duena da genozidioa gelditzeko adierazpen bateratuak eta batez ere erakunde desberdinek neurriak har ditzalabela ekintza politikoen bidez genozidioari amaiera emateko. Eta horregatik ere alde bozkatuko dugu.”



Jarraian, Iparragirre jaunak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, Arriola andreak esan duen bezala, guk ere beste mozio bat, aurkeztu dugu, baina uste dugu ez dela beharrezkoa. Ez dut txapa emango guztia irakurtzen, gehienbat nere birikek ez dutelako halako kapazidaderik, baina bai, nahi nuke punto batzuk azaldu eta irakurri egingo ditut, erderaz inporta ez bazaizue behintzat. Bale.”

En nuestra moción hacíamos alusión a varios puntos, pero hay algunos de ellos que me parecen importantes.

“En el punto dos, hablamos de instar al Gobierno de España a imponer un embargo total de armas a Israel, suspendiendo de forma inmediata cualquier contrato de compraventa de armamento de seguridad o relacionado con tecnología militar o de doble uso, y garantizando que no se permita el tránsito de armamento hacia Israel a través de puertos y aeropuertos españoles.

“En el punto tres, solicitar a todas las instituciones la suspensión de relaciones diplomáticas y comerciales con Israel, así como su exclusión de eventos culturales, deportivos y académicos internacionales, e instar a la revisión del acuerdo de asociación UE Israel, suspendiendo su aplicación mientras no se respeten las resoluciones internacionales y los derechos humanos en Palestina.

“En el punto cuatro, promover sanciones económicas contundentes contra Israel, incluyendo la desinversión en empresas que operen en territorios ocupados o que respalden la ocupación y garantizar una revisión ética de las inversiones y el comercio para evitar su complicidad en la vulneración de derechos fundamentales.

“Esto me parece importante, instando a las instituciones vascas a que anulen todo tipo de contratos, convenios o colaboraciones con otras autoridades o empresas israelíes, públicas o privadas en nombre de la paz, desde el convencimiento de que todas las medidas de presión son hoy necesarias para acabar con esta injusta invasión y régimen de apartheid.

“Además de eso, creemos necesario, y lo decimos en el punto siete, incorporar una perspectiva de género en todas las iniciativas relacionadas con el conflicto, promoviendo medidas específicas para proteger a las mujeres y niñas palestinas, así como garantizar su participación plena y efectiva en los procesos de reconstrucción y paz.

“Dicho proceso de reparación promoverá un mecanismo internacional supervisado por la ONU para garantizar el derecho al retorno, evaluar los daños y establecer reparaciones.

“Y, por último, el punto ocho. Dice. Apoyar activamente iniciativas internacionales dirigidas a llevar ante la justicia a los responsables de crímenes de guerra, humanidad y genocidio, colaborando con los tribunales internacionales para garantizar que estos delitos no queden impunes.

“Estos son los puntos que a nuestro juicio, echamos de menos en la moción presentada, y que nos llevaban a votar en contra de su moción, y a presentar una moción alternativa, que lamentablemente creo que no va a salir. Gracias.”

Jarraian, Fernández andreak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, gure ustez, aurkeztu dugun mozioa, bueno, ba argia dela eta ez genuke irakurketa desitxuraturik egiterik nahi. PNVtik berriro ere gure balioak aldarrikatzen ditugu, demokrazian sinesten dugula esaten dugunean. Hala da, inongo salbuespenik gabe.

“Jendea, gizartea eta pertsona bakoitza errespetatzen dugula esaten dugunean, benetan errespetatzen dugula ditugulako da.

“Giza eskubideak pertsona guztientzat defendatzen ditugula esaten dugu, horixe egin dugulako, beti, egiten jarraitzen dugulako eta etorkizunean ere egingo dugulako.

“Balio hoiiek babesten ditugu, bai hemen eta baita atzerrian ere.

